GORABIDE 50 urte años
ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín / aldizkaria
# berriak

SEPTIEMBRE DE 2012 | 2012KO IRAILA
Nº 212 Zk.

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com | www.gorabide.com
autogestores-gorabide.blogspot.com | tiempolibre-gorabide.blogspot.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/Gorabide

SAIOA INFORMA
SAIOA INFORMAZIOA
Información de interés
Informazio interesgarria
pg. 4 or.



Personas de nuestros 50 años
Gure 50 urteko pertsonak
pg. 5 or.





Actividades en los centros
Zentroetako jarduerak
pg. 8 or.



# LA DIPUTACIÓN OTORGA A GORABIDE EL TÍTULO ILUSTRE DE BIZKAIA



encuentro de autogestores en el guggenheim
autogestoreen topaketa guggenheimen
( pg. 6/7 or.)

# ALDUNDIAK BIZKAITAR ARGIAK TITULUA EMAN DIO GORABIDERI

# Gorabide recibe el título Ilustre de Bizkaia por sus 50 años de trabajo en favor de las personas con discapacidad intelectual

***La Diputación Foral de Bizkaia reconoce de esta forma el esfuerzo compartido desde 1962 entre las personas usuarias, sus familias, el colectivo de profesionales y el voluntariado***






El salón de recepciones del Palacio Foral de Bilbao fue el solemne escenario en el que la Diputación Foral de Bizkaia otorgó el 25 de julio, de manos del diputado general José Luis Bilbao, el título Ilustre de Bizkaia a Gorabide. Con esta distinción honorífica, se ve reconocida la importancia de las primeras familias que se unieron hace 50 años y el esfuerzo compartido de las personas con discapacidad intelectual, profesionales y voluntariado durante ese tiempo.

A modo de introducción, el diputado de Presidencia Juan Mari Aburto destacó la *"calidad y calidez"* con la que Gorabide concibe los servicios sociales. Y el diputado general de Bizkaia denominó a Gorabide como *"un colaborador imprescindible de esta Diputación Foral en la prestación de todo tipo de recursos destinados a la mejora de la calidad de vida de miles de personas"*. Además, recordó el lema del 50 aniversario *Bidean, Avanzando* para expresar: *"Desde luego que sí: mucho habéis avanzado desde aquel día de 1962"*. Y destacó que *"hoy, sois un orgullo para Bizkaia y un referente en el modelo de atención continuada, personalizada, integral y de calidad"*. También reconoció que *"habéis sabido crear unos servicios que nos han ayudado a consolidar el sistema social de responsabilidad pública"*.

LECTURA FÁCIL

Gorabide ha recibido el título Ilustre de Bizkaia que da la Diputación. Este título demuestra la importancia que han tenido las familias, personas con discapacidad intelectual, profesionales y voluntariado en estos 50 años. El diputado general dijo que Gorabide es un colaborador imprescindible.

**Visión, anhelo, esfuerzo y trabajo**

Al recoger la distinción, el presidente de Gorabide Hugo Baroja recordó los *"muchos primeros momentos"* que han jalonado estos 50 años y que, *"lejos de haber surgido por generación espontánea, son fruto de la visión, el anhelo, el esfuerzo y el trabajo de mucha y mucha gente, durante muchos años"*. Y remarcó que *"nuestra asociación es un ejemplo de trabajo colectivo continuado que pretende contribuir a mejorar su entorno y sociedad y que predica unos valores bien alejados del materialismo que hoy se demuestra tan poco recomendable"*.

Además de Gorabide, han sido nombrados Ilustres de Bizkaia 2012 el catedrático de bioquímica y biología molecular Félix Goñi Urcelay y las víctimas civiles de los bombardeos de la guerra, representadas por los Ayuntamientos de Gernika y Durango.





# Gorabidek Bizkaitar Argia titulua jaso du adimen desgaitasuna duten pertsonen alde 50 urte lanean emateagatik

***Bizkaiko Foru Aldundiak, horrela, 1962. urtetik erabiltzaileen, beren familiartekoen, profesionalen kolektiboaren eta boluntarioen artean egindako ahalegina aitortzen du***

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Foru Jauregiko Errezepzioetako Aretoan, uztailaren 25ean, José Luis Bilbao ahaldun nagusiaren eskutik, Gorabideri Bizkaitar Argia titulua eman zion. Ohorezko aipamen horren bidez, duela 50 urte proiektu honetan murgildu ziren lehenengo familien garrantzia eta adimen desgaitasuna duten pertsonek, profesionalek eta boluntarioek egindako ahalegina erakutsi nahi da.

Hasteko, Juan Mari Aburtok, Lehendakaritza Saileko diputatuak, Gorabidek gizarte-zerbitzuak emateko duen *"kalitatea eta abegikortasuna"* nabarmendu zituen. Eta Bizkaiko ahaldun nagusiak Gorabide honela definitu zuen: *"Foru Aldundi honen ezinbesteko laguntzailea, milaka pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko edozein baliabide eskaintzeko"*. Gainera, 50. urteurreneko *Bidean, Avanzando* lema gogorarazi zuen, hauxe esateko: *"Bai, hala da: ikaragarri egin duzue aurrera, 1962ko egun hartatik"*. Eta *"gaur egun, harro gaude bizkaitarrak, eta etengabeko arretaren eta arreta pertsonalizatu, integral eta kalitatezkoaren eredu zarete"* aspilmarratu zuen. Gainera, hauxe ere esan zuen: *"Jakin duzue erantzukizun publikoko sistema soziala finkatzen lagundu diguten zerbitzuak sortzen"*.

**Ikuspena, nahia, ahalegina eta lana**

Saria jasotzean, Gorabideko presidenteak, Hugo Barojak, 50 urteotako *"lehenengo hainbat momentuak"* ekarri zituen gogora, eta horiek, *"berezko sorrerakoak barik, jende asko eta askoren ikuspenaren, nahiaren, ahaleginaren eta lanaren emaitza izan da, hainbat urtetan zehar".* Eta azpimarratu zuen *"gure elkartea dela ingurunea eta gizartea hobetzeko asmoa duen lan kolektibo etengabearen adibide, eta gaur egun batere gomendagarria ez den materialismotik oso urrunduta dauden balioak aldarrikatzen dituela"*.

Gorabidez gainera, 2012ko Bizkaitar Argi izendatu dira ere Félix Goñi Urcelay, biokimika eta biologia molekularreko katedraduna, eta gerrako bonbardaketaren biktima zibilak, Gernikako eta Durangoko Udalek ordezkatuta.

IRAKURKETA ERRAZA

Gorabidek Foru Aldundiaren Bizkaitar Argia titulua jaso du. Titulu horrek erakusten du zenbateko garrantzia izan duten 50 urteotan familiek, adimen desgaitasuna duten pertsonek, profesionalek eta boluntarioek. Ahaldun Nagusiak esan zuen Gorabide ezinbesteko laguntzailea dela.

## 363 euro arteko osagarria, Seme-alabak izateagatiko Familia-prestazioan

Gizarte Segurantzaren seme-alabak izateagatiko familia-prestazioa jasotzen duen edo eragilea den 18 urtetik gorako edozein pertsonak (judizialki ezgaitua izan ala ez izan) jaso ditzake Diru-sarrerak bermatzeko errentaren pentsio-gehigarriak, hilean 363 euro artekoak, urtean lanbide arteko gutxieneko soldataren pareko diru-sarrerak bermatzeko. Horretarako, plaza bete behar da, etengabean, funts publikoez finantzatutako egoitza-zerbitzuan, ezin da ondasun higiezinik eduki (ohiko etxebizitzaz gainera), hilean 748,30 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak edo errendimenduak izan behar dira eta ezin da 30.000 euro baino gehiagoko ondare maximoa izan (dirua, tituluak, balioak, ibilgailuak). Gehigarri hori Lanbideren bulegoetan eskatzen da (Euskal Enplegu Zerbitzua). Aurretik, legez ezgaituta ez dauden pertsonen familiek Gizarte Segurantzan eskatu beharko dute eurak (adimen-desgaitasuna duten pertsonak) direla seme-alabak izateagatiko familia-prestazioa zuzenean jasotzen dutenak.

## Complemento de hasta 363 euros en la Prestación Familiar por Hijo/a a Cargo

Cualquier persona mayor de 18 años (incapacitada o no incapacitada judicialmente) que percibe o es causante de la Prestación Familiar por Hijo/a a Cargo de la Seguridad Social puede acceder al complemento de pensiones de la Renta de Garantía de Ingresos, de hasta 363 euros al mes, para garantizarle unos ingresos anuales equivalentes al salario mínimo interprofesional. Para ello, es necesario no ocupar plaza permanente en servicio residencial financiado con fondos públicos, carecer de bienes inmuebles (excepto la vivienda habitual), disponer de unos ingresos o rendimientos mensuales inferiores a 748,30 euros, y no disponer de un patrimonio máximo (dinero, títulos, valores, vehículos…) superior a unos 30.000 euros. Este complemento se solicita en las oficinas de Lanbide (Servicio Vasco de Empleo). Previamente, las familias de las personas que no estén legalmente incapacitadas deberán solicitar en la Seguridad Social que éstas (las personas con discapacidad intelectual) son las perceptoras directas de la prestación familiar por hijo/a a cargo.

## Aldi baterako arreta egoitza soziosanitarioetan

Ospitalean ingresatuta egon ondoren eta familia-etxebizitzara bueltatu aurretik, etxean eman ezin diren osasun-zaintzak behar dituzten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonek aldi baterako egoitza-zerbitzu soziosanitarioak dituzte. Egonaldia ezingo da sei hilabete baino gehiagokoa izan, salbuespenak salbuespen eta aurretiaz horretarako baimena izanik. Adimen desgaitasuna duen pertsonaren eguneroko diru-sarrera garbien %85eko prezio publikoa ordainduko da, eta ez ditu sekula eguneko 53 euroak gaindituko. Gainera, diru-sarrerako lehenengo 30 egunak ordainketatik salbuetsita daude.

## Atención temporal en residencias socio-sanitarias

Las personas en situación de dependencia que, tras un ingreso hospitalario y antes de volver al domicilio familiar, necesiten cuidados sanitarios que no pueden ser prestados en el ámbito doméstico, disponen de servicios residenciales socio-sanitarios temporales. La estancia no podrá pasar de seis meses, salvo casos excepcionales y con autorización expresa. Se abonará un precio público del 85% de los ingresos netos diarios de la persona con discapacidad intelectual, y nunca superará los 53 euros al día. Además, los 30 primeros días de ingreso están exentos de pago.

## Mendekotasun-egoeraren aitorpena

Adimen desgaitasuna duen familiartekoaren mendekotasun-egoeraren aitorpena eskatzea zein garrantzitsua eta komenigarria den gogorarazi nahi dizuegu; izan ere, baldintza hori gero eta beharrezkoagoa da, gaur egun dauden zerbitzu eta prestazioak baliatzeko.

## Reconocimiento de la situación de dependencia

Se recuerda la importancia y conveniencia de solicitar el Reconocimiento de la Situación de Dependencia de vuestro familiar con discapacidad intelectual, ya que es un requisito cada vez más necesario para el acceso a los diferentes servicios y prestaciones existentes en la actualidad.

**Servicio SAIOA Zerbitzua**
Centro Ola BBK Zentroa
(Sondika)
**Tel. 94 453 90 86**

SAIOA INFORMAZIOA
SAIOA INFORMA

# Personas de nuestros 50 años: Peña La Pachanga

***Durante las cinco décadas de vida de Gorabide, los apoyos de la sociedad han sido importantes. Ese es el caso de esta peña que, desde 1964, realiza donativos procedentes de la venta de lotería, al tiempo que sensibiliza a su clientela***

**La Peña La Pachanga tiene su sede en el Bar Arzua; y los responsables son el dueño Jose Pazo y su hijo Josemari, que es quien ha cogido su testigo.**

**Jose:** Todo comenzó con un bote en el que dos grupos de chiquiteros dejaban las vueltas que sobraban de cada ronda. El fundador fue Juan Moreno, Juantegui, y el nombre de la peña lo puso uno al que llamaban Artillero.

**Josemari:** Luego se fueron uniendo nuevas cuadrillas, y así hemos llegado a sumar unas cien personas que colaboran. Y nos mantenemos en esa cifra, a pesar de que la gente ha ido falleciendo o cambiando de domicilio.

**Jose:** En esta peña ha habido y hay personas importantes. Ha estado el abuelo de Alcorta, el exjugador del Athletic, el fundador de Bodegas Arrate... podría contar gente en fila desde aquí hasta Artxanda.

**Josemari:** Ahora la gente colabora con la compra de Lotería de Navidad: vendemos una participación de ocho euros, más dos de donativo.

**Jose:** Eso ha ido cambiando. Del bote de las vueltas, pasamos a una propina de una peseta a la semana, y después a la venta de la lotería con donativo, y un duro a la semana. Lo que ha quedado hasta hoy es la lotería.

**Josemari:** Lo importante es colaborar y que la gente conozca a dónde va el dinero. Yo todos los noviembres pongo el cartel de la lotería, con información de Gorabide.

**Jose:** La verdad es que estamos muy contentos de ayudar a Gorabide desde hace tantos años.

**Josemari:** Y seguiremos. Aunque algún año no se vendan las cien participaciones, nosotros siempre donamos los 200 euros.



# Gure 50 urteko pertsonak: La Pachanga Lagunartea

***Gorabideren bost hamarkadotan, gizartearen laguntza garrantzitsua izan da. Hori da lagunarte honen kasua; 1964tik, loteriaren salmentaren bidez lortzen dutenaren bidez dohaintzak egiten dituzte, eta bezeroak sentsibilizatzen dituzte***

**La Pachanga Lagunarteak Arzua tabernan du egoitza, eta arduradunak Jose Pazo ugazaba eta Josemari semea dira, semeak jarraituko baitu horretan.**

**Jose:** Txikitero koadrila bik beti ixten zituzten erronda bakoitzeko bueltak bote modura, eta horrela hasi zen kontu guztia. Juan Moreno, Juantegui, izan zen fundatzailea, eta lagunarte horren izena Artillero izeneko batek jarri zuen.

**Josemari:** Gero, koadrila berriak batzen joan ziren, eta, horrela, azkenean ehun bat pertsona daude laguntzen. Eta kopuru berarekin jarraitzen dugu, nahiz eta batzuk hil egin diren edo bizilekuz aldatu diren.

**Jose:** Lagunarte honetan pertsona garrantzitsuak egon dira eta daude. Alcortaren aititea egon da, Athleticeko jokalari ohiarena, Bodegas Arrateren sortzailea… Hainbat eta hainbat jende aipatu ahalko nuke…

**Josemari:** Orain, jendeak Gabonetako loteria erosten laguntzen du: zortzi euroko txartela saltzen dugu, gehi dohaintzarako bi.

**Jose:** Hori aldatzen joan da. Bueltekin egindako botea izan zen lehenengo urratsa, gero pezeta bat astean eta, gero, dohaintza duen loteriaren salmenta eta astean ogerleko bat. Gaur egun arte iraun duena loteria izan da.

**Josemari:** Garrantzitsuena da jendeak jakitea dirua zertarako den. Nik azaroan, urtero, loteriaren kartela jartzen dut, Gorabideren informazioarekin batera.

**Jose:** Egia esan, oso pozik gaude Gorabideri hainbeste urtetan laguntza eman izanaz eta ematen jarraitzeaz.

**Josemari:** Eta hala jarraituko dugu. Urte batzuetan ehun txartelak saltzen ez badira ere, guk beti ematen ditugu dohaintzan 200 euroak

# 130 personas con discapacidad intelectual analizan en el Guggenheim los avances conseguidos en las últimas cinco décadas






Dentro de los actos del 50 aniversario, Gorabide organizó el VIII Encuentro de Autogestores Fevas en el auditorio del Museo Guggenheim, que cedió el espacio para el evento. Allí, 130 personas con discapacidad intelectual de asociaciones de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava, participaron en la jornada ‘Quién nos ha visto y quién nos ve; 50 años mejorando nuestra calidad de vida’.

Durante la mañana del sábado 2 de junio, un total de 25 ponentes con discapacidad intelectual expusieron los cambios que ha vivido este colectivo en las últimas cinco décadas, y cómo ha mejorado su calidad de vida desde la existencia de las entidades de las que forman parte. Las charlas tuvieron títulos tan sugerentes como ‘Cambiando actitudes’, ‘Siempre se puede mejorar’, ‘¡Cómo hemos cambiado!’ o ‘Aprendiendo de los cambios’.

## Arte para terminar

En la última intervención, titulada ‘Viviendo el arte’, dos personas usuarias de Gorabide mostraron cómo influyen las expresiones artísticas en su vida. Esta ponencia se enmarca dentro de los actos del 15º aniversario del Guggenheim. Y el colofón a la jornada lo puso por la tarde el estreno en Bilbao de ‘Abre los ojos y me verás’, un espectáculo de danza de la compañía Despertar los Sentidos, protagonizado por personas con discapacidad intelectual.

LECTURA FÁCIL

Los grupos de autogestores de Fevas se reunieron en el Guggenheim el 2 de junio. Hablaron de lo que ha cambiado la vida de las personas con discapacidad en los últimos 50 años.

**Fotografías
Argazkiak**

**www.gorabide.com**










# Adimen desgaitasuna duten 130 pertsonak azken bost hamarkadotan lortutako aurrerapenak aztertu dituzte Guggenheimen




Gorabideren 50. urteurrena dela eta egindako ekitaldietako batean, Fevas autogestoreen VIII. topaketa antolatu zen, Guggenheim Museoko entzungelan, horretarako laga baitzuen espazio hori. Bertan, adimen desgaitasuna duten Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 130 pertsonak 'Lehena eta oraina; 50 urte bizi-kalitatea hobetzen' jardunaldian parte hartu zuten.

Adimen desgaitasuna duten 25 hizlarik kolektibo honek azken bost hamarkadotan bizi izan dituen aldaketak azaldu dituzte, bai eta horrelako erakundeak daudenetik beren bizi-kalitatea zelan hobetu den ere. Hitzaldien tituluak oso erakargarriak dira: 'Jarrerak aldatzen'; 'Beti dago zer hobetu'; 'Hau bai aldaketa!' edo 'Aldaketak ikasbide'.

### Artea amaitzeko

'Artea gozatzen' titulupeko azken esku-hartzean, Gorabideko erabiltzaile bik erakutsi zuten arte-adierazpenek beren bizitzetan zelako eragina duten. Hitzaldi hori Guggenheim Museoaren 15. urteurrenagatiko ekitaldien barruan kokatzen da. Eta, jardunaldiari amaiera emateko, arratsaldean, Bilbon, Despertar los Sentidos konpainiaren 'Ireki begiak eta ikusiko nauzu' dantza-ikuskizuna egon zen; adimen desgaitasuna duten zenbait pertsona izan ziren protagonista.

IRAKURKETA ERRAZA

Fevaseko autogestoreen taldeak batzartu ziren Guggenheimen ekainaren 2an. esgaitasuna duten pertsonen bizimodua azken 50 urteotan zelan aldatu den kontatu zuten.

## LABURRAK
## BREVES

### Subvenciones 2012 de Diputación y BBK

La Diputación Foral de Bizkaia y BBK han aprobado las subvenciones destinadas a Gorabide para el año 2012. El total, que supera los 686.000 euros, se suma a los importantes convenios de colaboración que la asociación mantiene con ambas entidades, tanto para el mantenimiento de centros como para la prestación de servicios.

### Aldundia eta BBKren 2012ko diru-laguntzak

Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBKk Gorabidek 2012rako eskatu dituen diru-laguntzak onetsi dituzte. Kopuru hori, guztira, 686.000 eurotik gorakoa da, eta, horrekin batera, elkarteak bi erakunde horiekin zentroak mantentzeko eta zerbitzuak emateko dituen lankidetza-hitzarmen garrantzitsuak ere badaude.

### Plan Estratégico 2012-2015

Con la elaboración del tercer Plan Estratégico de Gorabide, se han establecido las claves de los próximos cuatro años, entre las que destacan la sostenibilidad y viabilidad económica, el establecimiento de alianzas, la participación social, la gestión del conocimiento, mantener una base amplia y cohesionada, el desarrollo de personas y la mejora continua.

### 2012-2015 Plan Estrategikoa

Gorabideren hirugarren Plan Estrategikoaren bidez, hurrengo lau urteotako gakoak ezarri dira, besteak beste: jasangarritasun eta bideragarritasun ekonomikoak, aliantzak, gizarte-partaidetza, jakintzaren kudeaketa, oinarri zabala eta kohesionatua mantentzea, pertsonen kudeaketa eta etengabeko hobekuntza.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, con la misión de mejorar su calidad de vida desde un compromiso ético y promoviendo una sociedad más justa y solidaria.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta helburu du Bizkaian adimen desgaitasuna dutenen eta beren familiartekoen bizi-kalitatea hobetzea, konpromiso etikoa oinarri hartuta, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sustatzen.










# Jardunaldiak Lanestosa eta Astrabuduan

**Azken hileotan, zenbait jarduera egin da gure zentroetan. Horietatik guztietatik, bi argitaratu dugu: 'Cumbia Colombiana' ikuskizuna, Astrabuduako Eguneko Zentroan eginda, eta Lanestosako 725. urteurreneko Erdi Aroko azokan Isasti Egoitzako partehartzea.**

'Cumbia Colombiana' Denisse-ren ekimenetik sortu zen; Denisse Gizarte Integrazioko ikasle kolonbiarra da, eta Astrabuduako eguneko arretarako zentroan ari da praktikak egiten. Berak irakatsi zizkien erabiltzaileei bere jaioterriko dantzak, profesionalek eta erabiltzaileek egindako dekoratuekin eta jantziekin antzezpena antolatzeko.

Bestalde, Isasti egoitzako erabiltzaile eta profesionalek Lanestosako 725. urteurrenean antolatutako Erdi Aroko azokan parte hartu zuten. Lanbiderako jardueretan egindako objektuak jarri zituzten ikusgai, eta Erdi Aroko jantziak eraman zituzten.

# Actividades en Lanestosa y Astrabudua

**En los últimos meses, se han desarrollado numerosas actividades en los centros. De todas ellas, publicamos el espectáculo 'Cumbia Colombiana', realizado en el Centro de Día de Astrabudua, y la participación de la Residencia Isasti en el mercado medieval del 725 aniversario de Lanestosa.**

'Cumbia Colombiana' nació de la iniciativa de Denisse, estudiante colombiana de Integración Social que realiza sus prácticas en el CAD Astrabudua. Ella fue la que enseñó bailes de su tierra a las personas usuarias, para organizar una representación con decorados y vestuario realizados por profesionales y personas usuarias.

Por su parte, residentes y profesionales de la Residencia Isasti participaron en el mercado medieval organizado por el 725 aniversario de Lanestosa. Expusieron los objetos que realizaron en actividades ocupacionales, llevando trajes medievales.

# agenda
## septiembre
## iraila




**AGRUPACIONES ELKARTEAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **DEUSTO-SAN IGNACIO** | | | Junta Batzorde |
| *Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto* | | | |
| **Día Eguna** | 4 martes asteartea | **Hora Ordua** | 18:30 |
| **ERMUA** | | | Junta Batzorde |
| *Aldapa, 2-bajo A/etxabe A - Ermua* | | | |
| **Día Eguna** | 3 lunes astelehena | **Hora Ordua** | 19:30 |
| **MUNGIALDEA** | | | Comisión Komisio |
| *Atxurizubi, 12 - Mungia* | | | |
| **Días Egunak** | 6, 13, 20 y 27 | **Hora Ordua** | 20:00 |
| **SANTURTZI** | | | Comisión Komisio |
| *Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi* | | | |
| **Día Eguna** | 26 miércoles asteazkena | **Hora Ordua** | 19:00 |